

# Dale valor
# Emaiozu balioa

## BALIO ETA JARDUNBIDE EGOKIEN DEKALOGOA

## *Futbolari balio eman nahi badiozu*

1. Onar ezazu futbola **kirola** dela. Edozein indarkeria mota baztertu ezazu eta gozatu partidaz.
2. Kirolaria den aldetik, errespeta ezazu lehiakidea. Ez zaitez isilik geratu intolerantziaren, homofobiaren, arrazakeriaren edota bestelako jarrera baztertzaileen aurrean. **Guztiok berdinak gara.**
3. Zu baino hobe aritu bada, zoriondu ezazu lehiakidea. Ez ezazu inor gutxietsi. **Joko garbi** eta zintzoa nahi dugu.
4. Goza ezazu futbolaz. **Esfortzuari begira iezaiozu**, ez emaitzari.
5. Epaileen taldeko kideak ere kirolariak dira eta jokoan parte hartzen dute. **Jarraitu itzazu arauak**, horixe izanen baita jokoa ulertu ahal izateko modurik onena.
6. Futbola bizitza bezalakoa da. Konpromisoa, ardura, errespetua, sakrifizioa... **Hezibide onez eta tolerantziaz aritu zaitez** balio positiboak zeureganatzeko; hala nola, lankidetza, esfortzua, diziplina edota **norberaren mugak gainditzea.** Bestelako kultura edo bizi baldintzak dituen jendearekin jokatzea oso aberasgarria izan daiteke zuretzat.
7. Futbola bizitza osoan zehar beharko dituzun **balioetan hezteko tresna bezala erabili** ezazu. Arretaz aditu zure entrenatzaileak esaten dizuna.
8. **Hezibide onak** errespetua dakar berarekin. Bereizketarik gabeko kirola nahi dugu, ez soilik hoberenei begiratzen diena.
9. **Elkarbana** itzazu momentu onak eta txarrak zure taldearekin. Guztion lanak balio bera du eta denak dira beharrezkoak taldearen jardunean konfiantza eduki ahal izateko.
10. Bat egin ezazu dekalogo honekin. **Emaiozu balioa futbolari!**

F. N. F.

Federación Navarra
de Fútbol
Nafarroako Futbol
Federazioa